

Biktimak, elkarbizitzaren ate

ARNALDO OTEGI: "ETAren jardunaren ondorioz beren askatasuna murriztua zuten hautetsi guztiek seguruenik eta ziur sentitu zuten poza eta lasaitua partekatu nuen nire ziegatik. Biziki poztu nintzen haiek eta haien familiengatik". SER irrati kateari Otegi berriki emandako elkarbizitzaren argitaratutako zatia da eta ETAk urriaren 20an egindako adierazpenarekiko sentipenetakoak azaltzen ditu zati honetan. Beste esaldi hau aurtengo urtarrilean EPPKtik kanpo dagoen Langraitzeko preso talde bati ARGIAK egindako elkarbizitzatik ateratakoa da: "Besteen sufrimendua ikusita, gu ere hunkitzen gara". Kasu batean zein bestean adierazten denari enpatia deitzen zaio, biktimei buruzko edozelako auzien konponbidean behar den oinarriko sentimendua. Eta enpatiaren oinarriko ezaugarria da ezin dela antzestu, egiazkoa behar duela izan.

Eta, beraz, nola egin sinesgarri enpatia keinuak Euskal Herrian bizi izan dugun gatazkari dagokionez? Apurka, keinuen metaketaren bidez, oinarriko hausnarketetatik hasi eta gatazkaren aktore nagusiei euren erritmoak errespetatuz.

Alde horretatik, Gernikako Akordioak egin berri duen adierazpenak ez du inor ezustean harrapatu, ez da berrikuntza handirik bertan, espero zitekeena esan da. Areago, akordio horretako hainbat alderdi eta erakunde askoz urrutirago ere joan dira biktimen inguruko hausnarketetan. Baina, Gernikako Akordioaren adierazpen hori oso garrantzitsua da, ondoren bestelako hesiak gainditu ahal izateko ezinbesteko urratsa delako.

BIKTIMEN gaia ondo jorratzeak baditu bi helburu giltzarri edozelako



bake prozesutan: bata da biktimen alde humanoa kontuan hartzea, haien mina onartzea eta berau bideratzeko kalte-ordainak zehaztea; bestea elkarbizitza da, biktimen gaia adostasunez jorratzea baita elkarbizitzaren ate nagusia.

Gernikako Akordioak onartutako adierazpenak bere baitan ditu biktimen gaiari adarretatik heltzeko osagai ia guztiak: biktima guztiak kontuan hartzea, elkarrenganako errespetua eta onespena direla elkarbizitzaren oinarriak; erreparazioaren beharra; egia; oroimena; gatazkaren konponbiderako akordioa; eta etorkizuneko desadostasunetarako biolentzia bideak arbuiztea.

Osagai hauekin presta liteke elkarbizitzarako otordu oparorik, beti ere sinesgarritasunez jorratzen badira. Eta gaur gaurkoz hori da arazorik nagusia, akordio politikoa lortu behar duten aldean arteko sinesgarritasunik ez dagoela; baina hau ere egiten ari den bidea da, aldean arteko sinesgarritasuna gaur atzo baino handiagoa baita. Eta horren erakusgarri dira tantaka ematen ari den adierazpen eta ekitaldien zerrenda. Abuztuaren 9an Zumaian ETAk hildako Joxe Mari Kortaren omenaldian izan zen Bilduko ordezkari bat; abenduaren 2an Azpeitian Iñaxio Uriaren hilke-

taren hirugarren urteurreneko ekitaldian ere bai; joan den astean Gipuzkoako Diputazioak Frankismoaren biktimen omenaldian alderdi guztiak izan ziren, PP ezik; Otegiaren elkarbizitzak...

Gabezien artean bi azpimarra daitezke: Akordioa biktimen egoera eta mina bideratzeko neurriak hartu beharraz mintzo da, baina ez du adierazten hori zertan zehatz edo gauza litekeen; hori sakontasunez egitea ez dagokio agiri horri baina pista batzuk eskaintzea akaso bai. Irakurketa etiko urrienari ere uko egiten zaio, seguruenik hor kontsentsuak adostea gaitzagoa delako —eta akaso oraindik ezinezkoa—. Baina irakurketa hori ere behar da biktimei buruz aritzean, berdin ETAren biolentzia aztertzerakoan edo Estatuarena.

Azken finean, hau urrats esanguratsua da, baina oraindik ENAM-en antolatutako ezker abertzaleak bakarka egingo duen adierazpena falta da. Horren zain dira Gernikako Adierazpen hau mesfidantzaz hartu dutenak, eta hori ari ei da prestatzen aspaldi ezker abertzalea, edo hobeto esanda, prestatua izango du eta bere unearen zain dago.

Eta bai, galde dakieke ere Estatuaren alboan giza eskubideen urraketak babesten aritu direnei ea beraiek zer, ez ote duten beren eboluziorik erakutsi behar, baina honetan ere, ezker abertzaleari onura gehiago emango dio bere bide aldebakarrekoarekin aurrera egitea, Estatuak zer egiten duen zain egon gabe. Sorturen legeztatzeak erraztuko luke bidea, beste hainbat gauzatan moduan seguruenik, baina hori ez dago ezker abertzalearen eskuetan.

